

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko irailaren 03tik 09rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2022/09/05

- **BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK. EUSKADIKO ADMINISTRAZIOAK. EUSKO JAURLARITZA (LAN ETA ENPLEGU SAILA).** Arabako hirugarrenentzat kirol jarduerak egiten dituzten enpresen sektorearen hitzarmen kolektiboa. **2474 xedapena - 31 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

B.O.E. (Boletín Oficial del Estado)

2022/09/06

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Konkurtso-legea.** 16/2022 Legea, irailaren 5koa, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Konkurtso Legearen testuategia aldatzen duena, honako zuzentarau honen transposizioa egiteko: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/1023 (EB) Zuzentaraua, 2019ko ekainaren 20koa, prebentziozko berregituratze-esparruei, zor eta inhabilitazioen salbuespenei eta berregituratze, kaudimengabezia eta zorren kargarintzeen prozeduren eraginkortasuna handitzeko neurriei buruzkoa, eta Sozietate Zuzenbidearen zenbait alderdi jakini buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/1132 (EB) Zuzentaraua aldatzen duena (Berregituratze eta kaudimengabeziari buruzko zuzentaraua). **14580 xedapena - 170 or.**
- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Zientzia, teknologia eta berrikuntza.** 17/2022 Legea, irailaren 5koa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren ekainaren 1eko 14/2011 Legea aldatzen duena. **14581 xedapena - 71 or.**

2022/09/07

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Sexu askatasuna.** 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu askatasuna osorik bermatzeko. **14630 xedapena - 71 or.**
- **LURRALDE POLITIKAKO MINISTERIOA. Antolakuntza.** 667/2022 Errege Dekretua, abuztuaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen den Estatuko Periferiako

Administrazioa Koordinatzeko Ministerioarteko Batzordea arautzen duen irailaren 14ko 1162/2018 Errege Dekretua. 14631 xedapena - 3 or.

2022/09/08

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. Premiazko neurriak.** 16/2022 Errege Lege-dekretua, irailaren 6koa, etxeko zerbitzuko langileen laneko eta Gizarte Segurantzako baldintzak hobetzeko. 14680 xedapena - 29 or.
- **JUSTIZIA MINISTERIOA. Doako aholkularitza juridikoa. Araudia.** 586/2022 Errege Dekretua, uztailaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen den martxoaren 9ko 141/2021 Errege Dekretuak onetsitako Doako Aholkularitza Juridikoaren Araudia. 14682 xedapena - 5 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2022/09/07

- **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA.** 97/2022 DEKRETUA, uztailaren 26koa, bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena. 3905e xedapena - 7 or.

2022/09/08

- **SEGURTASUN SAILA.** EBAZPENA, 2022ko abuztuaren 16koa, Joko eta Ikuskizunen zuzendariarena, zeinaren bidez arautzen baita onarpen-zerbitzuko langile gisa gaitzeko sistema eta onartzen baitira proba horien oinarri izango diren moduluak. 3919e xedapena - 5 or.

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENA0, 26 - BILBAO